

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NAFARROAKO LURRALDE
ESTRATEGIAREN AURKEZPENA

Bidasoako lurralde saioa

Lekua: Arizkunenea Kultur Etxea, Elizondo.

Data: 2022ko abenduaren 1a

Ordua: 18:00 - 20:00

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren aurkezpena.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Lurralde saio honen helburua NLE berrikusteko dokumentua aurkeztea zen. Dokumentu horrek maiatzean aurkeztutako zirriborroaren bilakaera garrantzitsua dakar, eta hasierako izapideak egin eta jendaurrean jarri aurretik parte hartzeko aukera ematen du.

Funtsezkoa da adieraztea parte-hartzearen xede den dokumentuak oraindik ere kontuan hartzen dituela hobekuntzak, eta, beraz, fase erabat parte-hartzailean dagoela. Fase honek abenduaren 15era arteko iraupena izango du (azaroaren 14an bertan hasi zen; egun horretan dokumentua Nafarroako parte-hartzearen webgunean argitaratu zen).

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azaldu da. Ez dira sartu pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Euskararen gaiak kezka sortu du; izan ere, “Nafarroako hizkuntzez” hitz egin da, baina euskara ez da aipatu ere egin. Lurralde mahaiaren aurreko bileraren ekarpenak kontuan hartuko zirela esan zen, baina ezetz ikusi da.
- Zalantzak daude NLE loteslea izango den ala ez; interesgarria litzateke gai hori argitzea.
- Kezka handienetako bat gobernantza da. NLEn hainbat gobernantza mota planteatu dira: maila anitzekoa, horizontala... Baina proiektu handiak zentrotik ezartzen dira oraindik, adibidez, UPS berria (meatze-proiektua), Baztango etorkizuneko garapenari eta tokiko komunitateei eragingo diona. Herriak hori geldiarazi zuen lehen aldian, eta bigarreanean ikusteko dago. Estrategia horrek ahulgune asko ditu. Proiektu estrategikoek partaidetza-prozesuak izan behar dituzte. Eta ikusitakoa ikusita, aukera bakarra da parte ez hartzea, eta, beharrezkoa bada, bereiztea, prozesu horrek sentimendu sezesionistak sortzen baititu. Gainera, kapitalismoaren logika behin eta berriz aipatu da, eta deigarria da honaino ekarri gaituen ereduaren ahuleziei buruz ez hitz egitea 2022an.
- Badago tartea Nafarroak UPS bidezko eskualdez gaindiko antolamendua izateari uzteko. Eskualdea babestu liteke. Kezkagarria da estrategiak gai oso akademikoak planteatzea, gero ekintza-mailan islatzen ez direnak. LAGetan planteatutako gai batzuk ez dira betetzen ari (lurralde osoari eragiten dioten jarduketak, hazkunde-eremuetara mugatu beharrean, eta abar). Estrategia bat eredu bat hartzeko erabakia da, eta Bidasoak zein eredu nahi duen erabaki behar du, administrazio mailan berrituz. Estrategiak ildo horretako zuzentarauak defini litzake. Herritarrek uste badute ezin dutela eredu bat defendatu, estrategiek porrot egingo dute.
- Garraio publikoaren strategiari dagokionez, zer planteatu da? Deskonexioa dago, eta horrek kezka handia sortzen du.

Ekarpenen zatia amaitu ondoren, erredakzio-taldeak azpimarratu du garrantzitsua dela ekarpenak bidaltzea, nahi den zentzuan eta norainokoan, adierazitako webgunearen bidez, eta abenduaren 15era arteko epearekin.